



# LABORATORIUM



## HEZKUNTZA ESKAINTZA

unitate  
didaktikoak



LABORATORIUM  
BERRIA

2018 - 2019

# 1. JARDUERA DIDAKTIKOA

## “argia piztu: zientziaren sorrera euskal herrian”

**Nori zuzendua:**

Batxilergoa 1

**Noiz:** Urria

**Iraupena:** 3 ordu

**Ikasle kopurua:** gehienez 50

**Prezioa:** Doan



### JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Bergara Euskal Herriko zientziaren sorlekua izan da, bertan sortu zelako zientzia eta kalitatezko hezkuntza uztartu zituen lehen erakundea: Bergarako Errege Seminarioa. Proustek Bergaran antolatu zuen laborategian, Elhuyar anaiek 1783. urtean elementu kimiko berri bat aurkitu zuten: wolframa. Erakunde honek utzitako bilduma aberatsekin egin da Laboratorium museoa.

Museoaren erakusketa iraunkorrak kontatzen du, alde batetik, berrikuntza gizakion berezko gaitasuna dela eta, bestetik, “zientzia” deitzen dugun tresnari esker, berrikuntza-ahalmena biderkatu eta aro berri batean sartu ginela XVIII. mendetik aurrera. Zientziaren garapenari lotuta gizartea nola aldatu den erakusten du. Zientziaren eta gizarte-garapenaren arteko loturez dihardu.

Erakusketa iraunkorra ezagutu eta Bergarako kaleetatik barrena ibiliko gara, museoan ikusitakoa garai hartako (XVIII-XIX. mendeak) testuinguru sozioekonomikoan kokatzeko.

Jarduera didaktiko honen bidez, ikasleek “Kultura Zientifikoa” landu hal izango dute.

## 2. JARDUERA DIDAKTIKOA

### “biodibertsitatea: biziaren etorkizuna”

**Nori zuzendua:**

DBH3, DBH4 eta  
Batxilergoa

**Noiz:** 2019ko

martxoak 15 – ekainak 30

**Iraupena:** 3 ordu

**Ikasle kopurua:** gehienez 30

**Prezioa:** 100 €



#### JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Biodibertsitatea gara. Bakterio, onddo, intsektu, arrain hegazi eta abarrekin batera. Haiek guztiak bezain bizirik gaude, erlazio-sistema konplexu batean kateatuta. Lurreko biziaren norakoa gurea ere bada. Azken hamarkadetan zientzialariek bildu dituzten ebidentziei esker esan dezakegu biodibertsitatea, bizia, krisian dagoela. Planeta bizia galtzen ari da bizkor-bizkor. Horren jakitun al gara? Zer etorkizun itxaron dezakegu?

Jarduera didaktiko honen helburua da biodibertsitatearen garrantzia ezagutzeko eta berau kontserbatzeko erreminta orokorrak eskaintzea alde batetik, eta bertako espezie nagusien ezagutza sustatzea bestetik. Bi atal ditu, erakusketa eta laborategiko lana:

- “Biodibertsitatea: biziaren etorkizuna” erakusketako infografiek, objektuek, eta kontserbazio biologiarren arloko aditu batek prestatutako testuek ezagutza eskainiko dizkigute. Erakusketara bisita gidatua egin eta lan koaderno batean ariketa batzuk egingo ditu ikasleak.

- Laborategian, “Euskal Autonomia Erkidegoko mikrougaztunen identifikazioa egagropila bidez” tailerraren bidez animalia talde honen Euskal Autonomia Erkidegoko mapa berritzeko erreminta ezagutu eta praktikan jarriko da.

Jarduera museoko gidarien laguntzarekin garatzen da uneoro eta hiru orduko egonaldia eskatzen du *Laboratorium* museoan.

### 3. JARDUERA DIDAKTIKOA

## “biodibertsitatea: biziaren etorkizuna”

**Nori zuzendua:**

LH5 eta LH6


**Noiz:** 2019ko

martxoak 15 – ekainak 30

**Iraupena:** 3 ordu

**Ikasle kopurua:** gehienez 30

**Prezioa:** 100 €



#### JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

Biodibertsitatea gara. Bakterio, onddo, intsektu, arrain hegazi eta abarrekin batera. Haiek guztiak bezain bizirik gaude, erlazio-sistema konplexu batean kateatuta. Lurreko biziaren norakoa gurea ere bada. Azken hamarkadetan zientzialariek bildu dituzten ebidentziei esker esan dezakegu biodibertsitatea, bizia, krisian dagoela. Planeta bizia galtzen ari da bizkor-bizkor. Horren jakitun al gara? Zer etorkizun itxaron dezakegu?

Jarduera didaktiko honen helburua da biodibertsitatearen garrantzia ezagutzeko eta berau kontserbatzeko erreminta orokorrak eskaintzea alde batetik, eta bertako espezie nagusien ezagutza sustatzea bestetik. Bi atal ditu, erakusketa eta laborategiko jarduera:

- “Biodibertsitatea: biziaren etorkizuna” erakusketara bisita gidatua egin eta lan koaderno batean ariketa batzuk egingo ditu ikasleak.

- Laborategian, “Bisoi europarra. Gure ugaztunen artean, egoera larrienean dagoena” tailerraren bidez, gure faunako espezie enblematikoena ezagutuko dute ikasleak.

Jarduera museoko gidarien laguntzarekin garatzen da uneoro eta hiru orduko egonaldia eskatzen du **Laboratorium** museoan.

## 4. JARDUERA DIDAKTIKOA

### “energia”

**Nori zuzendua:**

DBH3-DBH4

**Noiz:** 2019ko otsaila

**Iraupena:** 3 ordu

**Ikasle kopurua:** gehienez 30

**Prezioa:** Doan



#### JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

2018ko abenduan energiari buruzko aldibaterako erakusketa zabalduko dugu museoan. Horrekin batera gai honi lotako unitate didaktikoa izango dugu. Jarduera didaktikoa frogatuko dugu interesa duten ikastetxeetako ikasleekin.



LABORATORIO

ARGIA PIZTU :  
ERREKALDEAREN SORRERA EUSKAL HERRI.

LABORATORIO MUSEORAKO BISITA-GIDA **IKASLEARENtzA**



**BIODIBERTSITATEA**  
BIZIAREN ETORKIZUNA



Erreserbak egin eta informazio  
gehiago jasotzeko deitu  
943 769 003 telefonora.



[laboratorium@bergara.eus](mailto:laboratorium@bergara.eus)

[www.laboratorium.eus](http://www.laboratorium.eus)

Errekalde jauregia . Juan Irazabal pasealekua, 1 . Bergara - Gipuzkoa